

SAILKATZEKO DONOSTIAN. Gaur erabakiko da zein traineruk osatuko duten Donostiako Banderako zortzikotea

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Orioko trainerua, Zierbenako Petronor Banderan.

Kontxarako lehen urratsa

Hemeretzi ontzi lehiatuko dira gaur, Donostiako banderarako zazpi txartel eskuratzeko

Ramon Basaldua | BILBO

Kontxako banderaren lehenengo ekitaldia jokatu da gaur Donostiako badian. Kultura eta Turismo Ekintzetxeak antolatzen duen estropadan zortzi traineru bakarrik lehiatzen dira —KTEk ezezkoa eman die hirugarren txanda antolatzeko eskatzen dutenei— eta horietariko batek Donostiakoa izan behar du. Ondorioz, zazpi postu baino ez daude, hautagaiak hemeretzi diren arren.

Kontxarako sailkatze estropadan ez dago faboritorik. Esan beharrik ez dago ontzi batzuk beste batzuk baino aukera gehiago dituztela txartela eskuratzeko. Hala ere, gaurko estro-

padak ez du inolako hutsegiterik onartzen, eta faboritoren batek bere maila ematen ez badu, kanpoan geratuko da. Gainera, estropada bakar batean istripuren bat gertatu eta edozein faborito kanpoan gera daiteke.

Itsasoak ezustekoak egoteko atea zabal dezake

Eguraldiak garrantzi handia izaten du Kontxarako sailkatze estropadan. Traineru indartsuek itsaso barea nahi dute gaurko jardunaldirako, baretan ezustekoak egoteko aukerak murriztu egiten direlako. Sailkatze aukera txikiak dituztenek, ostera, itsaso zakarra nahi dute, ezustekoei atea zabaltzeko. Horretaz gain, zenbait trai-

neruren aukerak erabat murrizten dira itsasoa bare ez badago.

Gaurko jardunaldiari dagokionez, ez dirudi itsasoa zakar egongo denik. Era berean, itsasoa ez da egongo bare-bare. Kontuak kontu, Donostiako estropada eremua bikain egongo da Kontxako sailkatze estropadarako.

Hemeretzi ontziak bi multzotan banatuta lehiatuko dira, eta ezustekorik ezean, A multzoa osatzen duten bederatzi ontzietatik aterako dira Kontxarako txartela eskuratzeko duten zazpi traineruak. Castro, Orio, Urdabai, Pasai Donibane, Astillero, Hondarribia, Isuntza, Perillo eta Santurtzi dira faborito nagusiak. B multzoari dagokionez,

Trintxerpe gero eta hobeto ari da eta ezustekoa ematen saiatuko da.

Oriok irabazi zuen iazko sailkatze estropada, Koxtape, Zumaia-Getaria, Castro, Tiran, Trintxerpe eta Hondarribiaren aurretik. Urdabai zortzigarren sailkatu zen, Hondarribiaren-gandik bost segundora.

Gaurko sailkatze estropadan faborito maila ezberdinak daude. Castro eta Orio guztien gainetik daudela esan daiteke. Pasai Donibane, Urdabai eta Astillero osatuko lukete hurrengo multzoa, Hondarribia, Isuntza eta Perilloren aurretik. Santurtzi eta Trintxerpe ezustekoa ematen saiatuko dira eta gainerako traineruek ez dute

ESTROPADA

Hemeretzi ontzi lehiatuko dira Kontxarako sailkatze estropadan, bi multzotan banatuta. Estropada arratsaldeko 18:30ean hasiko da, eta lehia jokatu aurreko delegatuen batzarrean zozkatuko da zein multzo aterako den lehen. Urtero legez, parte-hartzaileek bi luze eta ziaboga bat egin beharko dituzte, erlojupekoan. Zazpi onenak sailkatuko dira.

A multzoa

- Hondarribia
- Orio
- Pasai Donibane
- Isuntza
- Santurtzi
- Urdabai
- Astillero
- Castro
- Perillo

B multzoa

- Zumaia
- Fortuna
- Hernani
- Trintxerpe
- Pasai San Pedro
- Ur Kirolak
- Zarautz
- Zierbena
- Castropol
- Rianxo Amegrove

aukera handirik Kontxan sartzeko. Aipaturiko hamar traine-ruetatik hiru ez dira izango Kontxako banderan. Orain arte gertatutakoaren arabera, Trintxerpek eta Santurtzik estropada bikaina egin beharko lukete Kontxarako txartela eskuratzeko. Horretaz gain, ikus-teko dago zein maila ematen duen Perilloko traineruak. Galiziako txapelketan ezustekoa eman eta atzean utzi zuten Mecos faboritoa. Galiziarrek inoiz baino hobeto prestatu dute aurtengo Kontxarako sailkatze estropada.

JON AKARREGI

Isuntzako arraunlaria

«Inor ez dago sailkatuta aurretik; gauza asko gerta daitezke»

«Gu ondo iritsi gara Kontxako Banderako estropadara. Ezertan pentsatzen hasi aurretik txartela eskuratu behar dugu, eta ez da erraza izango, aurkari indartsuak ditugu eta. Nolanahi ere, itxaropen handiz ekingo diogu lehiari, eta gure maila ematen badugu sartu egingo gara uste dut. Goi mailako traineruak izango dira lehia horretan, bai; baina, nire ustez, oker dabilta aurretik bost traineru sailkatuta daudela esaten dutenak. Kontxako Banderarako sailkatzeoan gauza asko gerta daitezke. Azken batean, itsasoak nor bere lekuan lagatzen du. Kontxan sartu eta ezustekoa ematen saiatuko gara».

PATXI BILBAO

Urdabaiako entrenatzailea

**«Ez dut espero ezusteko handirik»**

«Denboraldiko une onean iritsi gara Kontxara, eta guztiok itxaropentsu gaude, zer edo zer polita egin dezakegula uste dugulako. Garrantzitsuena eta zailena sailkatze estropada gaintzea da, sekulako presioa izaten da eta. Txartela lortuz gero, barruak esaten dit sekulako estropada egingo dugula Kontxako banderan. Sailkatze estropadari dagokionez, ez dut uste ezusteko handirik egongo denik. Sekulako ilusioa dugu Urdabain, eta gure zaleak itxaropentsu ikusi nahi ditugu, Kontxako banderan gauza politak egiteko moduan gaude eta.

LUIS HERNANDEZ

Perilloko entrenatzailea

«Ez dugu erreferentziarik eta hori arazoa da guretzat»

«Gogo handiz etorri gara, eta, noski, Kontxako Banderako sailkapen estropadan lan ona egin eta sailkatze esperantza daukagu. Aukerak baditugu, baina ezin da jakin. Arazo bakarra daukagu: ez gara lehiatu hemengo traineruekin ia eta ez dugula erreferentziarik. Ezustekorik ezean, Castrok, Oriok, Pasai Donibane, Urdabai eta Astillero arazorik gabe lortu beharko lukete sailkapena. Beste bi txartelak, aldiz, Trintxerpe, Isuntza, Hondarribia, Santurtzi eta gure artean erabakiko direla uste dut. Itsasoa bare egotea komeni zaigu, ez gaudelako itsaso txarrarekin lehiatzera ohituak. Halere, beste ontzi askok hori nahiko dute».

PACO PRIETO

Pasai Donibaneko entrenatzailea

**«Zaila da ezustekoak izatea, baina eguraldi txarra egiten badu...»**

«Gogo handiz eta sailkatze helburuarekin ekingo diogu. Denboraldi polita egin dugu orain arte, eta orain Kontxako Banderarako sailkatze ardurak dugu. Zaila da ezustekoak izatea, baina eguraldia eta ondorioz itsasoa gaizki badaude... edozer gauza gerta daiteke. Hautagai nagusiak lau dira: Castro, Orio, Urdabai eta Astillero. Hori bai, gu sailkatzea da buruan daukadan gauza bakarra. Itsasoari dagokionez, pixka bat harrotua egotea gustatuko litzaiguke, pixka bat, ez harrotuegia. Horrela, aukera gehiago izango genituzke.